KULTURA SAILA

6132

AGINDUA, 2006ko urriaren 17koa, Kultura sailburuarena, Markina-Xemeingo (Bizkaia) Gaytan de Ayala edo Patrokua jauregia, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2005eko urriaren 10eko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpenaren bidez Markina-Xemeingo (Bizkaia) Gaytan de Ayala edo Patrokua jauregiak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2005eko azaroaren 17ko EHAAn, 219. zk., argitaratua izan zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, 2005eko urriaren 27an Markina-Xemeingo Udalak alegazioak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean.

Alegazio-idazkian, zeinak Euskal Kultura Ondarearen Zentroko arkitektoaren txostena jaso baitu, eskatzen da jauregiaren babes-eremuaren mugaketa aldatzea W aldetik. Izan ere, batetik, lursailaren benetako muga jartzen da mahai gainean: lursaila Urko ibaiaren ibilgutik banatzen duen erribera-pasealekua, udal titularitatekoa; eta, bestetik, adierazten da bide hori barnean hartzeak zaildu egiten duela lanon kudeaketa administratiboa.

Erantzun behar dugu eskaerak ez duela funtsean aldatzen babes-eremuaren Wko muga; ez dakar bestelako ondoriorik, zeren azalera txikia baita eta eraginik ez baitauka erabilera-araubidean. Onartu egiten dugu, beraz, alegazioa. Mugaketatik kentzeko eskatzen den espazioa librea baita, udal titularitatekoa eta ibai- eta erreka-ertzen alorreko araubidearen mendekoa, zeinak

DEPARTAMENTO DE CULTURA

6132

ORDEN de 17 de octubre de 2006, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Palacio Patrokua o Villa Gaytán de Ayala en Markina-Xemein (Bizkaia) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Palacio Patrokua o Villa Gaytán de Ayala en Markina-Xemein (Bizkaia), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 10 de octubre de 2005, publicada en BOPV n.º 219, de 17 de noviembre, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, el Ayuntamiento de Markina-Xemein presentó alegaciones con fecha de entrada en el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco de 27 de octubre de 2005.

En el escrito de alegaciones, informado por el arquitecto del Centro de Patrimonio Cultural Vasco, se solicita la modificación de la delimitación del entorno de protección del palacio, por su extremo W, debido a que, por una parte, se aporta el límite real de la finca, separada del curso del río Urko por medio de un paseo-camino de ribera, de titularidad municipal. Por otra, se hace constar que para la gestión administrativa de tales obras supone una mayor complejidad la inclusión de este camino.

Se debe contestar que se trata de una petición que no supone una modificación sustancial del límite W de la delimitación del entorno de protección. No tiene mayor repercusión tanto por la mínima superficie que supone, como por las nulas implicaciones que tiene sobre el régimen de usos posibles. Se acepta, por lo tanto, la alegación, habida cuenta de que el espacio que se soli-

ez baitu baimentzen eremu horietan lan berezirik, salbu eta pasealekua egokitzekoak, urbanizatzekoak, ertzak lehengoratzekoak eta abar; guztiz debekaturik dago, horrenbestez, ondasun inbentariatua balioztatzea eragotz dezakeen lan oro.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Markina-Xemeingo (Bizkaia) Gaytan de Ayala edo Patrokua jauregia Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

Laugarrena.– Markina-Xemeingo Udalari eskatzea bere hirigintza-araudia egokitu dezan, higiezin hori babesteari begira.

Bosgarrena.– Espedienteko interesdunei, Markina-Xemeingo Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza eta Udal Harremanak Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi

cita excluir de la delimitación es un espacio libre, de titularidad pública, y afectado por la normativa sectorial en materia de márgenes de ríos y arroyos, que no permite en dicho ámbito mayor intervención que obras de acondicionamiento de ese paseo, urbanización, recuperación de márgenes, etc., quedando totalmente excluida cualquier iniciativa que suponga obras de edificación que pudieran afectar en alguna manera a la puesta en valor del bien Inventariado.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir el Palacio Patrokua o Villa Gaytán de Ayala en Markina-Xemein (Bizkaia), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Markina-Xemein para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Markina-Xemein, a los Departamentos de Cultura y Relaciones Municipales y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal

hilabeteko epean, agindu hau azkenekoz argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urriaren 17a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Honekin batera doan planoaren bidez, babestu beharreko ingurunearen mugaketa definitu dugu. Eraikina bera eta jatorrizko partzelaren zati bat hartzen ditu bere baitan: jatorrizko lorategiaren zati bat ere hartzen du barne (orain ikastetxe batena dena), zuhaitz-espezie handiagoak eta zaharragoak dituena, baita partzelatik kalerako bidea ixten duten elementuak ere (burdin hesiak eta hormak).

Bada, honakoak izango dira mugak: mendebaldean Urko ibaiaren ertzean doan bidea; hegoaldean partzelatik kalerako itxitura bera; ekialdean eta iparraldean lorategiaren barruko bideetako batekin batera doan lerroa, ibaiarekin bat egiten duen lekuraino.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Honako faktore hauek dira proposatutako mugaketa baldintzatzen dutenak:

– Batetik, ondasunaren izaera bera (lorategiz hornitutako tamaina handiko etxea), eraiki gabeko gutxieneko lursail bat izatea eskatzen duena, atxikita.

– Bestetik, jatorrizko partzelaren tamaina eta forma aldatu izana eta bertan eraikuntza berriak egin izana, jauregiaren ingurune hurbila egoki errespetatuz eta balio nabarmena duten zuhaitz-espezieei eutsiz.

Inguru horrek badu ondasuna babesteko eta balioa azaleratzeko beharrezkoa den gutxienekoa, eta eskakizun du higiezinaren ondoko espazioak eta mugaketan barne hartutako partzela ixteko elementuak babestea.

Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2006.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación del entorno de protección es la que se define por medio del plano adjunto. Incluye el propio edificio y una parte de su parcela original: abarca parte del jardín original (ahora perteneciente e un centro escolar) con las especies arbóreas de mayor porte y antigüedad, así como los elementos de cierre de la parcela (enrejados y muros) hacia la calle.

Así, queda definida por los siguientes límites: al W por el camino de ribera que acompaña al río Urko, al S por el propio cierre de parcela hacia la calle, y al E y N por una línea que acompaña uno de los caminos interiores del jardín, hasta su encuentro con el río.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene condicionada por los siguientes factores:

– Por un lado la propia naturaleza del bien (mansión en parcela ajardinada de grandes dimensiones), que exige el mantenimiento de un mínimo de terreno libre de edificación, afecto al mismo.

– Por otro, la modificación de las condiciones de tamaño y forma de la parcela original, y de las nuevas edificaciones que en ella se han asentado; que ha tenido el acierto de respetar el entorno inmediato al palacio, incluidas especies arbóreas de apreciable valor.

Este entorno tiene consideración de mínimo imprescindible para la debida protección y puesta en valor del bien, e implica la protección de los espacios adyacentes al inmueble y de los elementos de cierre de parcela incluidos en la delimitación.



ESKALA / ESCALA

30 0 30 60 Meters

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: **Gaytan de Ayala edo Patrokua Jauregia**	Lurraldea / Territorio: **BIZKAIA**	Data / Fecha: 21/12/2005
	Udalerria / Municipio: **MARKINA-XEMEIN**	Eskala / Escala: 1:2000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Patrokua jauregia, Gaytan de Ayalaren jauregia izenarekin ere ezagutzen dena, Xemeingo Andra Maria parrokiatik 100 metro eskasera dago, eta Markina-Xemeingo herrigune historikotik beste 130 metro ingurura, Urko ibaiaren gaineko zubia zeharkatu ostean betiere. Honako muga hauek zituen partzela zabal baten baitan zegoen kokatuta: mendebaldetik Urko ibaia; hegoaldetik Markina-Xemeindik Xemeinera doan bidea (horren ondoan dago jauregia); eta ekialdetik eta iparraldetik Andre Maria parrokiaren ingurutik hasi eta Xemeingo Elizateko udaletxe zaharretik eta Arretxinagako San Migel ermitatik barrena doan bidea.

70eko hamarkadaren erdialdean Lea Artibai ikastetxea kokatu zen bertan. Egoki jokatu eta jauregitik hurbilen dagoen inguruko lorategia errespetatu zuten, balio eta tamaina nabarmenak dituzten zuhaitz-espezie zahar eta guzti.

Jauregia hasieratik bertatik izan zen Barroetatarrena eta ondorengoena, Gaytan de Ayalakoen aldekoena. Barroetatarrak jauntxo buruzagien artekoak izan ziren, baita Markina-Xemeingo familiarik ezagunenetako bat ere, protagonismo handia izan zutelako eta familiak jarraitasuna izan zuelako denboran. Iparraldera, jauregitik kilometro ingurura, Oxillaingo burdinola eta errota, eta San Joakin eta Santa Anaren ermita ditugu. XVIII. mendearen amaieran Gaytan de Ayalatarrekin ahaidetu ziren. Ayalatarrek jauregia handitzeko obra handiak egin zituzten, eta beraiek eman diote izena jauregiari. Badirudi Patrokua izenak familia honek Xemeingo Elizatean zuen nagusitasunarekin duela zerikusia.

XVIII. mendearen amaieran, Miguel de Barroetak eraiki zuen mendebaldeko muturrean dagoen eraikin neoklasikoa, ibaiaren ondoan. Bolumen kubikoa da, beheko oina eta bi solairu eta lau isurkiko estalkia dituena. Lehenengo bi solairuak harlangaitzezkoak dira, harlanduzko platabandek bereizten dituztela, eta azkena adreilu zarpiatukoa. Harlandua du eskantzuetan eta baoen inguruan, ataburu nahiz leihoburuetan. Barnealdean ondo antolatutako lau horma-arteko egurrezko egitura du.

Eraikin horri ekialdetik atxikita egin ziren handitzeko lanak (1927-29), Gaytan de Ayalak Emiliano Amann arkitektoari eskatuta. Estilo neobarrokoa du eta elkarri atxikitako hiru bolumen ditu. Lehena jatorrizko eraikin neoklasikoarekin lotzeko bolumena da, hasiera batean solairu bakarra izan zuena, terraza batek estalita. Alabaina, Joaquín de Yrizar-en (1945) berritzearen ostean solairu bat gehiago du: egutera bikoitza, erdi-puntuko hiru arkurekin, bistako adreiluz egindakoa eta zutabe toskanarrak dituena oinarri. Hori guztia bi isurkiko teilatuak estaltzen du.

ANEXO II

Descripción

El Palacio Patrokua, también conocido como de Gaytán de Ayala, se sitúa a escasos 100 metros de la Parroquia de Santa María de Xemein, y a otros 130 del Casco Histórico de Markina-Xemein, una vez atravesado el puente sobre el río Urko. Se disponía dentro de una amplia parcela, cerrada por los siguientes límites: al W el río Urko, al S el camino que va de Markina-Xemein a Xemein, junto al que se dispone el palacio, y por E y N el camino que arranca desde las inmediaciones de la Parroquia de Santa María, el antiguo Ayuntamiento de la anteiglesia de Xemein, y la ermita de San Miguel de Arretxinaga.

A mediados de los años 70 se instaló allí el centro educativo Lea Artibai Ikastetxea, que ha tenido el acierto de respetar el jardín en el entorno más próximo al palacio, con especies arbóreas de apreciable valor, porte y antigüedad.

El palacio perteneció desde sus orígenes a los Barroeta y sus descendientes por la línea de los Gaytán de Ayala. La familia de los Barroeta, perteneciente a la nobleza dirigente, fue una de las más destacadas de Markina-Xemein, por su protagonismo y continuidad en el tiempo. Aproximadamente a un kilómetro al N de este palacio se encuentra el conjunto edificado perteneciente a esta familia, compuesta por: la Casa-Torre de los Barroeta, la ferrería y el molino de Oxillain, y la ermita de San Joaquín y Santa Ana. A finales del s. XVIII emparentaron con éstos los Gaytán de Ayala, que realizaron importantes obras de ampliación, y de quienes ha tomado nombre este palacio. El nombre de Patrokua parece hacer mención al patronazgo que ejercía esta familia sobre la Iglesia de Xemein.

A finales del siglo XVIII, Miguel de Barroeta construyó el edificio neoclásico del extremo W, junto al río. Se trata de un volumen cúbico, que consta planta baja y dos alturas, con cubierta a cuatro aguas. Las dos primeras plantas son de mampostería, separadas por platabandas de sillares, y la última de ladrillo enfoscado. Se emplea sillería en esquinales y recerco de vanos, todos ellos adintelados. Interiormente se levanta una estructura de madera bien ordenada de cuatro crujías.

A ese edificio se le adosa por su lado E la ampliación (1927-29), encargada ya por los Gaytán de Ayala al arquitecto Emiliano Amann. En estilo neobarroco, se compone de tres volúmenes adosados. El primero es un volumen de enlace con el original neoclásico, inicialmente de una sola planta cubierta por una terraza, que tras la reforma de Joaquín de Yrizar (1945), presenta un planta más: una doble solana, con tres arcos de medio punto, de ladrillo visto, sobre columnas toscanas. Todo ello cubierto por tejado a dos aguas.

Bigarren gorputza da nagusia eta hiru solairu ditu, lau isurkiko estalkiaren azpian. Beheko bi solairuak harlangaitzezkoak dira eta inposta molduratua dute erremate gisa. Horrek ematen dio bide azkeneko solairuari, bistako adreiluko erdi-puntako arkutxoen segidak osatzen duenari, logia moduko harrizko kolomatxoen gainean. Gorputz honen konposizioari dagokionez nabarmentzekoa da kantoiko leiho-balkoia, kantoian bertan kokatutako arku babeslearen azpian dagoena, baita estalkiaren erremate gisako diren angeluetako lau garitoi eta pinakuluak ere.

Zabaltzeko lanen baitan egindako hirugarren bolumena zerbitzu eta sukaldeetara bideratutakoa izan zen, eta beraz, huraxe da xumeena, bai bolumenari begira, bai konposizioari begira. Hala eta guztiz ere, gainerako eraikuntzen ildo nagusiari jarraitzen dio. Beheko solairua harlangaitzezkoa da eta ganbara, berriz, bistako adreilukoa.

Barnealdeari dagokionez, azpimarratzekoa da gaztainondoa erabili izana estaldura eta dekoraziorako. Egun ere oraindik ikus daiteke gaztainondoa eraikinaren hainbat tokitan. Bertako gela guztien artean liburutegia gailentzen da nabarmen. Liburutegia eraikin nagusi neobarrokoaren lehen solairuan dago eta berori da jauregiko gelarik nobleena, gaztainondoz egindako dekorazioa dela eta.

El segundo cuerpo, que es el principal, tiene tres plantas y cubierta a cuatro aguas. Las dos plantas inferiores, de mampostería, se rematan por medio de una imposta moldurada, que da paso a la última compuesta por una sucesión de arquillos de medio punto de ladrillo visto, sobre columnillas de piedra a modo de logia. Destaca en la composición de este cuerpo la ventana-balcón en esquina, bajo arco protector también en esquina, y los cuatro garitones y pináculos en los ángulos que rematan la cubierta.

El tercer volumen de la ampliación estuvo dedicado a servicios y cocinas, y por tanto es el más modesto, tanto en volumen como compositivamente. Aun así, sigue las líneas generales del resto de edificaciones, cerrando la planta baja con mampuesto, y la ganbara con ladrillo visto.

Interiormente destaca el empleo de madera de castaño en revestimientos y decoración, presente aun hoy en el edificio en diversas partes del mismo. De todos los espacios sobresale notablemente la biblioteca, instalada en la planta primera del edificio principal neobarroco, cuya decoración en este material la convierte en la más noble de todas las estancias del palacio.

6133

EBAZPENA, 2006ko azaroaren 21ekoa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenen estreinaldiak eta horien DVD formatuko banaketa komertziala sustatzeko ekimenetarako diru-laguntzak nola eman arautzen duen aginduaren babesean aurkeztutako eskariak aztertuko dituen Balorazio Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kultura sailburuaren 2006ko abuztuaren 28ko Agindua, euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenen estreinaldiak eta horien DVD formatuko banaketa komertziala sustatzeko ekimenetarako diru-laguntzak nola eman arautzen duena.

Kontuan izanda agindu honen 8. artikuluak Balorazio Batzordearen osaera EHAAn argitara emango dela jasotzen duela.

Honako hau,

6133

RESOLUCIÓN de 21 de noviembre de 2006, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se hace pública la composición de la Comisión de Valoración encargada del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas al amparo de la Orden mediante la que se regula concesión de subvenciones a iniciativas destinadas a fomentar los estrenos de producciones audiovisuales en euskera, así como su distribución comercial en DVD.

Vista la Orden de 28 de agosto de 2006, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para iniciativas destinadas a fomentar los estrenos de producciones audiovisuales en euskera, así como su distribución comercial en soporte DVD.

Considerando que el artículo 8 de la citada Orden dispone que la composición de la Comisión de Valoración para el análisis y evaluación de las solicitudes se hará pública mediante inserción en el BOPV.

En su virtud,